

BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES



GIDA DIDAKTIKOA Clásicos Cómicos (Sortzailea: ARTAZIAK)

Antolatzailea / Organizador

Babeslea / Patrocinador

Dirulaguntzak / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL!
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Interreg
POCTEFA
MICAP
Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Vital
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN



Casa del Libro



BIARGI SAREA

AURKIBIDEA

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA

1. KLASEAN IKERTZEN. Antzerkira joan aurretiko jarduerak.

Sarrera.

Ezinbestekoa. Ikertzaileen kit-a

1.1 jarduera

1.2 jarduera

1.3 jarduera

2. IKASGELATIK ANTZOKIRA. Antzezlan bat ikusteko bizipena.

3. PUNTU ETA JARRAIAN. Antzerkira joan osteko jarduerak.

3.1 jarduera

3.2 jarduera

3.3 jarraituko du...

0. LIBURUAK, ARBELA ETA... ANTZERKIA.

Testu hau irakurtzen hasi bazara, eskolan zure lana garatzerako garaian tresna gehiago edukitzea gustatuko litzaizukelako da. Liburuak, arbelak eta...antzerkia, zergatik ez? Antzerkia tresna oso baliagarria izan daiteke jakin-minak esnatzeko, beste begirada batzuetaz ohartzeko edota gorputza eskolan egiten den lanaren ardatzean jartzeko.

Egun batzuk barru Klasiko Komikoak antzezlanak ikustera joango zarete. Ikuskizun dibertigarri honek, zenbait entremesen bitartez, aspaldikoa izan arren batzuetan gurearen tankerakoa den gizarte bateko pertsonaiak eta bizipenak ezagutaraziko dizkigu. XVI. mendean gertatutako istorioak kontatuko dizkigu ...-en mailako idazleen eskutik, eta gaur egungo gure gizartean ditugun harreman-ereduen eta gizonezkoek zein emakumezkoek betetzen duten paperaren inguruan hausnartzeko balioko digute.

Hezkuntza-unitate hau baliagarria egingo zaizu lan hau hasteko. Irakur ezazu eta zeurea egin, jarrai ezazu hasieratik bukaerara, nahastu edota atalik gustokoenarekin geratu zaitez. Dakizun bezala, hezkuntzan ez dira formula magikoak existitzen, ikasle guztiak ez dira berdinak eta beti ez gara modu berean sentitzen. Horregatik garrantzitsua da zu, irakasle bezala, proposamen hau zure eskolara lurreratzea, ikasleen ahotsak entzunez eta dinamika bakoitza zure errealitate zehatzetara egokituz. Erronkari heltzeko gogoz?



1. IKASGELAN IKERTZEN. Antzerkira joan aurretiko jarduerak.

Sarrera. ¿Nola jokatuko dugu?

Izotza apurtzeko ariketa 25min.

Antzerkirako irteeraren berri eman aurretik, izotza apurtzeko ariketa bat egitea proposatzen dizugu, egoerari neurria hartzeko. Edozein unetan egin dezakezun ariketa sinplea da, baina unitate honen lanketa hasi baino egun bat edo bi lehenago egitea gomendatzen dizugu. Honako hau da ariketa:

- Hainbat arloekin lotutako pertsonaia famatuena zerrenda egingo dugu, geuk ezagutzen ditugun izenekin (nahikoa da izena jakitea; ez dago informazio gehigarririk eduki beharrik zerrendan sartu ahal izateko). Horretarako, boluntario bat arbelean jarriko da eta gainerakoek esandako izen guztiak bertan idatziko ditu. Adibidez,

Ezagutzen ditugun pertsonaia famatuak arlo hauetan

- *kirola*
- *sukaldaritza*
- *arte*
- *literatura*
- *musika*
- *(...)*

Ordena zehatzik gabe, izenak esateari ekingo diogu, eta arbelean dagoen pertsonak apuntatu egingo ditu. Kirolaren arlotik has gaitzke, eta bururatzen zaizkigun izen guztiak esan ostean, salto egingo dugu hurrengo arlora. Horrela, nahi ditugun arlo guztietako pertsonaiak bildu arte.



Bukatutakoan, eskatu beste bi ikasleri altxatzeko eta arbelaren ondoan besoak luzatuta zutunik jartzeko, bata bestearen alboan. Apuntatutako izenak irakurriko ditugu, eta, izen bakoitzeko, gainerako ikasleek liburu bat emango diote zutunik dagoen ikasleetako bati. Izena gizonetzko batena izanez gero, liburua eskuineko aldean zutunik dagoen ikasleari emango diogu, eta, izena emakumezko batena izanez gero, ezkerrean dagoenari.

Izenak irakurtzen joan ahala, bi ikasleek gero eta liburu gehiago izango dituzte aldean. Gizonetzkoen izen kopurua emakumezkoena baino handiagoa bada, eskuineko ikasleak jasan beharko duen pisua handiagoa izango da ezkerrekoarena baino. Liburuak aldean mantendu behar izatearen funtsa, nolabait, desoreka handi hori geure gorputzean sentitzea eta ikusaraztea da.

Izenak irakurtzen bukatu eta gertatu dena ikusitakoan, honako galdera hauek egin ditzakezu:

Zer gertatu da? Zergatik ezagutzen ditugu gizonetzko artista gehiago emakumezkoak baino? Nire etxean beti sukaldean aritu izan dena ama edota amama izanda... nola liteke gizonetzko sukaldariak baino ez ezagutzea? Ez dago arlo horietan guztietan aritzen den emakumerik? Zergatik ez ditugu ezagutzen? Zer iritzi dugu horren inguruan? Egin dezakegu zerbait hori aldatzeko?



Orain badaukagu ikerlanerako gai bat. Hemendik aurrera, unitate honetan hainbat jarduera proposatuko zaizkizu, eta, antzerkirako bisitaldiarekin batera, ikasgelan ikasteko beste modu batzuk irakatsiko dizkigun esperientzia artistikoa bizitzen lagunduko digute.

Ezinbestekoa. Ikertzaileen kit-a (15 min.)

Ikasgelan ikerketa hau gauzatu ahal izateko, saio hauetarako ezinbesteko erreminta gisa aurkez dezakezun ikertzaile kit-a jarriko dugu zure eskura. Modu honetara egongo da osatuta:

1. Erreminta: PAILAZO SUDURRA.

Unitate honekin batera pailazo sudur bat ematen dugu ikasle bakoitzarentzat. Horrek, beste batzuen artean, bi funtzio zehatz izango ditu:

- a. Egoera, irudi... jakin bat matxista dela jakinarazten digun usaina hartzea.
- b. Egoera horri iseka egitea, kritika gisa, eta gure iritzia begi-bistako moduan adieraztea l.



2. El método TABLEAU VIVANT¹

Praktika artistikoetako ohiko estrategia bat baliatuko dugu: *tableau vivant* metodoa. Ekintza honetan eremu fisikoan, gure gorputzaz baliatuz, aurretiaz ezaguna zaigun irudi bat irudikatuko dugu.

¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Tableau_vivant



1.1 jarduera. *Irudia sortzen (50-60min. gutxi gorabehera)*

Klasiko Komikoak antzezlanaren kartel-irudia proiektatuko dugu horman eta ozenki komentatuko dugu: Zer iradokitzen digu? Zer garaitakoa da oinarritzat hartu duten irudia? Zer irudikatzen edo adierazten du? Zer iruditzen zaigu pailazo sudurra jarri izana?... Eta laster ikusiko dugun antzezlanaren kartela dela badakigu, ikuskizunaren inguruan hausnartzen has gaitezke: nolakoa izango den, zer gai landuko duen...

Karteleko irudiak garai zehatz batean kokatzen gaitu: Urrezko Mendean. Ikasleekin Urrezko Mendearen esanahiaz hitz egin dezakezu eta, hemendik aurrera, nahi duzun informazio guztia gehitu. Izan daiteke eskolako curriculumarekin loturaren bat aurkitzea eta ikasturte honetan ikasleak ikasgaiaren batean gai hori lantzen aritzea. Bestela, aski izan daiteke garaiaren^[2] azalpen labur bat ematea.

Jarduerarekin hasteko, hiru taldetan bananduko dira ikasleak. Talde bakoitzari irudi bat banatuko zaio. Honako irudi hauek erabiltzea proposatzen dizugu.

- *El triunfo de Baco (Los Borrachos)*, Diego Velázquez. 1629
- *Las meninas*, Diego Velázquez. 1656
- *La Fábula de Aracne, (Las hilanderas)*, Diego Velázquez 1657

Talde bakoitzak ondo ezagutu beharko du egokitu zaion irudia (autorea, urtea, estiloa, zer adierazten duen...), eta, tableau vivant teknikaz baliatuz, ahalik eta irudirik antzekoena sortu beharko du.



Talde bakoitzak antolatu eta ondoko lanak egin beharko ditu.

1. Ikerketa taldea. 2 pertsonak Interneten, liburutegian... bilatu beharko dute irudiaren inguruko informazioa.
2. Zudendari taldea. 2 pertsonak irudia irudikatzen ari direnak zuzenduko dituzte, kanpotik jarraibideak emanez.
3. Antzezle taldea. Irudiko eszenan agertzen den pertsonaia kopurua ordezkatzeko adina.
4. Atrezzo taldea. 2 pertsona arduratuko dira irudikapena egiteko lekua aukeratu, beharrezko elementuak aurkitu eta antzezleei beraien pertsonaia ondo antzezteko laguntzeaz.
5. Argazkilaria. Irudiaren sortze elementu guztiak hartu beharko ditu kontuan: lekua aproposa den, ikuspuntua, argiztapena, aktoreen interpretazioa... eta jatorrizko irudira ahalik eta gehien hurbiltzen den argazkia atera beharko du.

Argazkia ikasleetako baten mugikorrarekin aterako da eta e-postara bidaliko dizu ordenagailura deskarga dezazun, hurrengo saiorako prest utzi ahal izateko.



1.2 jarduera. Jarri sudurra (50-60 min. gutxi gorabehera)

Talde bakoitzak sortutako irudia proiektatuz hasiko dugu saio hau. Talde bakoitzak bere irudiaren aurkezpena egin beharko du; bildu duten informazio guztiaren berri eman eta irudiaren balorazioa egin beharko dute emakumeak eszena horretan betetzen duen paperari dagokionean.

Ikasleen aurkezpenak bidera ditzaketen zenbait galdera iradokitzen dizkizugu.

- *Nor da irudi honen egilea?*
- *Zein pertsonaia agertzen dira? Nola uste duzu sentitzen dela horietako bakoitza? (bere posturagatik, ekintzagatik, janzkeragatik, adierazpenagatik... tebleau vivant-ean islatu behar izan duten guztia).*

- *Zenbat emakume agertzen dira? Zer ari dira egiten?*
- *Zer iritzi duzue egoera honi buruz? Gaur egun gerta daitekeen egoera da? Zein da gaur egun ezagutu/ikusit/bizit izan duzun egoerarik antzekoena? Zer alderdi aldatu dira? Zeinek jarraitzen dute berdin?*

Balorazio horren ostean, emakumezkoarentzat bidegabea den egoeraren bat islatzen duten pertsonaiak identifikatu beharko ditu talde bakoitzak; hau da, egoera matxistaren bat adierazten dutenak. Hori beste irudi baten sorrerarekin egingo dute ikusgai. Tableau vivant-ean pertsonaia hori antzestu duen ikasleak berriro egingo du, baina oraingo honetan pailazo sudur gorria jarrita, argazkilariak argazki bat atera diezaion. Nahi badugu, pertsonaia horri egindako iseka justifikatzeko, azalpen-esaldi bat idatz dezakegu kartel batean eta argazkian kartel horrekin agertu.

(Nahiago izanez gero, irudi berria osatzeko beste modu batzuk proposa daitezke; esate baterako, Photoshop edo ikasleak erabiltzera ohituta dauden beste programaren batekin moldaketak eginda). Ikasle guztiek programa horiek ezagutzen ez badituzte, formakuntza saiotxo bat egin daiteke, programen erabilera menperatzen duen ikasleren batek zuzendua.


Ariketa honetan baliteke irudietan agertzen diren pertsonaia guztiek kritika edo iseka egitea merezi dutela pentsatzea.



2. IKASGELATIK ANTZOKIRA. Antzezlan bat ikusteko bizi-pena.

Orain arte egindako lanari esker, begirada kritikoagoarekin joango zarete antzokira. *Klasiko Komikoak* antzezlanaz gozatzea opa dizuegu; barre egitea eta obra tableau vivant-aren zein sudur gorrien bitartez eratutako irudien sortze prozesuan landu dugun ikuspuntutik ikustea.

KLASIKO KOMIKOAK (iseka entremesak) Urrezko mendeko bost obra laburrez osatutako ikuskizuna da. Bertan hainbat egoera dibertigarri agertuko dira: beren onetik ateratako emazteak, maitale ausartak eta burlen jopuntu izango diren senarrak. Landuko den ikuspuntua emakumeena da, mende luzeetan gizarte matxistaren nahiaren mende egon direnak. Gizonezkoen zorigaiztoko gertakariekin barre egingo dugu, eta baita gutzizatutako emazteekin elkartzeko maitaleek erabiliko dituzten estrategiekin ere. Behingoagatik bada ere, emakumeek nahi dutena lortuko dute, eta sortuko diren gatazka zein aldrebeskeria irrigarriak pertsonaia konponduko dira.



guztien kantuekin eta dantzekin

Entremesak:

- LOS LOCOS, anonimoa.
- EL NIÑO DE LA ROLLONA, Francisco de Avellaneda-rena.
- GUARDADME LAS ESPALDAS, Calderón de la Barca-rena.
- LOS MUERTOS VIVOS, Luis Quiñones de Benavente-rena.
- LOS TOROS DE ALCALÁ, Juan de la Hoz y Mota-rena.

3. PUNTU ETA JARRAIAN. Antzerkira joan osteko jarduerak.


3.1. Jaduera. Lekuak eta begiradak

Antzezlanak ikusi ostean, bisitaldiaz eta Klasiko Komikoak obraz hitz egingo dugu ikasgelan. Zer iruditu zaigu? Zer gizarte mota irudikatzen du antzezlanak? Zer egoera matxista identifikatu ditugu? Burlaren bat ezagun egin zaigu? Zein? Nolakoak imajinatzen dituzue garaiko beste antzezlan batzuk? Nola irudikatzen zen emakumea? (Orduko obra garaikideren bat aukera dezakegu eta konparaketa egin)

Artearen historia gertukoagoan, begi onez ikusten ez dugun gizartearen alderdiren bat modu dibertigarri zein ironikoan irudikatzen duten hainbat irudi sortu dira. Horietako asko mundu mailan izen handikoak diren artistek eginak dira. Tartean, maila handiko emakume artistek, ikuspegi feminista oinarri, ekarpen handia egin diete mota honetako ekoizpenei.

Irudi hauetakoren bat ikus dezakegu eta bere inguruan hitz egin


- *Barbara Kruger, Untitled (Your body is a battleground), 1989*



- *Guerrilla girls, Do Women Have To Be Naked To Get Into the Met. Museum? 1989*



- *Martha Rosler, "Limpiando las cortinas", de la serie Bella Casa: Trayendo la guerra al hogar", c. 1967-72*



3.2. Jarduera. Sudur erakusketa

Eskuragarri ditugun irudi batzuk aztertuko ditugu. Egunotan sare sozialen edo mugikorreko aplikazioen bidez bidali zein jaso ditugunak erabil ditzakegu; edota etxean aurki ditzakegun aldizkarietako iragarkien irudiak, eta baita ikasturte honetan erabiltzen ari garen ingeleseko liburuan agertzen direnak ere.

Zuk, irakasle, guztion artean hautatutako irudi horiek guztiak paperean izateaz arduratu beharko duzu (zuri-beltzean egon daitezke).

Ikasle bakoitzak irudi horietako bakoitzean honakoa pentsatu beharko du: emakumearen papera zein den, zer gizarte mota irudikatzen den eta agertzen den ideiarri iseka egin nahi dion ala ez. Nahi izanez gero, gomets gorria jarriko zaie agertzen diren pertsonaiei, pailazoak izango balira bezala.

Bukatzeko, irudi guztiak ikasgelako horman itsatsiko ditugu eta denbora tarte bat utziko dugu beraiei begira egoteko. Gainerako ikasgeletako ikasleak ere gonbida ditzakegu irudiak ikustera eta iseka egin nahi diegun eztabaidatzera.

3.3 Jarraituko du...

Hemen duzue antzezlan, irudi, film... zerrenda bat, ikasgelan emakumezkoaren inguruko beste narratiba eta eredu batzuk lantzeko erabil ditzakezuenak.

- Feminist frequency. The Bechdel Test for Women in Movies
<https://www.youtube.com/watch?v=bLF6sAAMb4s>
- Erakusketak. CONTRASEÑAS. Femitatearen irudikapen berriak
<https://montehermoso.net/docs/doc10.pdf>
- Video "Velaske, yo soi guapa?"
Velazkezen koadroari buruzko hausnarketa egiten duen bideo remix-a eta artikulua, Margaritaren figura, egungo eta garaiko gizarte sexistaren ereduari buruzko kritika eginez.
<https://www.youtube.com/watch?v=ll6p2-40-F0>
https://verne.elpais.com/verne/2017/12/05/articulo/1512458149_505878.html

Bestalde, sudur gorriak eskura izatea proposatzen dizuegu, ikasgelako beste erreminta baten gisan. Horrela, ikasgelan egoera matxistaren bat identifikatuz gero, pailazo sudurra erabiliz eszena jarraitzeko proposamena egin diezaiekegu gertakariaren egileei.

Horrez gain, gomets edota errotulagailu gorriak ere izan ditzakegu gure materialaren artean, emakumezkoarentzako egoera bidegaberen bat adierazten duen irudiren bat agertuz gero (libururen batean, proiektatutako irudi batean...), erabili ahal izateko.

Modu honetan, pixkanaka, gero eta ikuspegi kritikoagoa izatea landuko dugu, eta bidegabea iruditzen zaiguna aldatzeari ekingo diogu.

Beharrezko materiala:

Pailazo sudurrak.

Telefono mugikorra edota argazki kamera.

Kartulinak eta errotuladore.

Gomets gorriak.

Errotuladore gorriak.

[1] https://es.wikipedia.org/wiki/Tableau_vivant

[2] https://es.wikipedia.org/wiki/Siglo_de_Oro